

**Denbora horretan ikusi nuen
ahalegin txiki batekin
laguntza handia eman
niezaiokeela, hemen etxe bat
zuela sentitzen baitzuen.**



KONTAKTATU:

Araba

SAN VIATOR IKASTETXEA

945 22 65 95

sersosanviator.loturak@gmail.com

Loturak elkartearen
erreferentziako erakundeak
lurralde bakoitzean:

Bizkaia

**Getxo eta Uribe Kostako
Mankomunitatea**

PERTSONALDE

688 62 53 05

asier@pertsonalde.org

Gipuzkoa

LOIOLAETXEA ELKARTEA

620 92 87 39 (Asier)

676 94 27 29 (Tania)

loturak@loiolaetxea.org

Ezkerraldea eta Meatzaldea

PORTUGALETEKO ASIALDI SAREA

loturak@aisialdisarea.org

610527498

Bilbao eta Bizkaiko gainerakoak

ELLACURIA FUNDAZIOA

747 47 39 26

ainhoa@fundacionellacuria.org

LOTURAK

Harrerarako euskal sare herritarra
antolatzeke ekimena

FAMILIA HARRERAGILEAK



**Balioa ematen diozu zuretzat arrunta den
guztiari, orain zurekin bizi denak atzean utzi
behar izan duenari.**



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



ELLACURIA
FUNDAZIOA
GIZARTE GUNEA
CENTRO SOCIAL



ZER DA 'LOTURAK'?

Harrerako sare lokalak eraikitzeko programa bat, honako hauetatik abiatuta:



Familia harreragileak



Harrera egiten duten
bolondrez taldeak

Topaguneak eraikitzearen aldeko apustua egiten dugu. Bertan boluntariotza, harrera jasotzen zein harreragileak diren familiak, eta hiritar orok bidezkoagoak, kritikoagoak eta migratzaileekin eta errefuxiatuekin konprometituagoak izateko aukerak bultzatu egiten dira.

Gure printzipioak



1

HIRITARTASUNA
ERAIKITZEA



2

AUKERA-
ANIZTASUNA



3

ELKARBIZITZAREN
KUDEAKETA



4

BIZIKIDETZARAKO
GUNEAK



5

ELKARTASUN-SARE
ANTOLATUA

FAMILIA HARRERAGILEEN PROGRAMA

Honako konpromiso hauek hartzen dituzten etxeen, komunitateen, familien eta pertsona harreragileen sarea da:

- Etxean bertan familia errefuxiatuak hartzea, gutxienez 3 hilabetez (eta 6 edo 12 hilabetera luza daiteke).
- Hartutako familien oinarrizko bizitoki- eta mantenu-beharrak asetzea.
- Borondatez egitea (trukean ez da inolako konpentsazio ekonomikorik jasotzen).



Harrera sabaitik haratago doa,
gure etxea irekitzea, etxe bat eraikitzea
eta elkarrekin bizitzea da helburua.

FAMILIA HARRERAGILEA IZAN NAHI DUT, NOLA HASIKO GARA?

LEHEN

- Harrera posiblearen azterketa: familia harreragilearen, harrera egingo zaion familia eta etxebizitzaren egoeraren balorazioa.
- Harrera-akordioa sinatzea: parte-hartzaileen konpromisoak eta erantzukizunak.

BITARTEAN

- Bizikidetza eta harrera-prozesua aldizka ebaluatzea.
- Erreferentziatzko laguntza teknikoa edozein premia, zalantza edo gatazkatan.
- Etengabeko prestakuntza eta laguntza psikosozialerako aukerak.

ONDOREN

- Harrera-helburuaren akordioa sinatzea eta azken ebaluazioa.

Baina dena ez da amaitzen:

- Herreran hartutako familiarekiko loturaren jarraipena egitea bultzatzen da.
- Sentsibilizazioa sustatzen da, programaren bidez sortutako esperientziak kontatuz.